

Andoaingo Udalak iaialdia berreskuratu du, osasun egoerara egokituta. Nafarroa plazaren ordezt, emanaldiak aforo mugatuarekin izango dira. / 2-5

HAN

EMERGENCIA COVID-19 LARRIALDIA

EDO HEMEN

EROSI ANDOAI NEN

S2 SALKIN
berritatu berritu

#andoainbizi
#erosietorkizuna

ERABILI BONUA
EKAINAK 30
BAINO LEHEN

ANDOINGO UDALA

"Oraindik ere estutzen nau oholtzara igotzeko uneak"

ENeko 'OKENE' ABREGO TXOPEITIA INOREN ERO NI TALDEKO ABESLARIA

Andoaingo Rock jaialdiaren aurtengo edizioan parte hartuko dute. Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian ariko dira larunbatean, 19:00tan hasita



Eneko "Okene" Abrego Txopeitia, Bastero plazan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN
Zenbat denbora daramazue jendarean aritu gabe?

Musika eroa eta dantzagarria da gurea, eta ikusita gauzak nola zeuden eta zuzenkorako jartzen ziren arazoak, ez jotzea erabaki genuen pandemiaren hasieran. Egoera luzatzen joan da, ordea, eta halako batean eszenategietara itzultzea erabaki genuen. Dena esatera, nahiko kaskarra izan zen gure lehenengo emanaldia, ez geunden ohituta eserita dagoen jendearentzat aktuatzeraz, ezin publikoa altxarazi eta dantzan jarri! Poliki-poliki errealtate berrira nola egokitu ikasten aritu gara. Neu ere beste modu batera nabil eszenategian, mugimenduak gehiago kontrolatuz eta horrela. Zenbait jarraitzaileek adierazi digute orain beste modu batera ikusten gaituztela, arreta gehiago jartzen diotelako taldearen hainbat detailei: doinuak, letrak... Izan ere, gaztetxetan eta halako lekuetan jo ohi dugu asko, eta horietan, badakizu, taberna-barra gainezka, jendea marmarka, zarata nonahi...

Larunbateko kontzertua zure herrian jotzeak, berezitasunik eransten al dio?

Berrogei urtetik gora daramat oholtza gainean, eta gezurra badirudi ere, oraindik ere estualdia

sentitzen dut edonongo oholtzara igo aurretik; espero dut ez galtzea tentsio puntu hori, premiazkoa delako! Eta zer esanik ez Andoaingen denean kontzertua... Halakoetan beti eragin dute zirrara nigan, eta larunbatekoa ere trantze berekoa izango da, are gehiago jakinda familia-koak, adiskideak, lagunak... aurrez-aurre edukiko ditudala.

Inoren Ero Ni "euskal post rockaren kultuko talde" gisa aurkeztu zuten, Rock Jaialdia aurkeztu zutenean...

Barre pittin bat eragin zidan definizio horrek, egia esanda. Zaila egiten zait dena etiketekin sailkatu behar horretan sartzea, baina ulertzen dut, hain zabala baita pop eta rockaren mundua... Alde horretatik, zergatik ez, onargarria izan liteke gurea post rocka dela esatea. Izan ere, gure ibilbidean, progresiboki, musika estilo askotara zabaltzen joan baikara, eta gaur egun gure musikan denetik baitago, izan jazz, izan soula, izan punka...

Finkatuta daukazue estiloa, eta esperimentazioari ekiten diozue.

Lau musikariok lagun minak gara, elkar ulertze maila handia daukagu taulagainean; horrela, sendotasun handiko taldea osatu dugu, eta esango nuke kasik ez dugula entseiatu ere egin beharrik. Alde horretatik, oso irekiak gaude esperimentaziorako, jolaserako, inprobisaziorako... Abesti batekin hasi, eta kapaz gara beste batekin amaitzeko. Pentsa, zuzeneko akatsak ere baliagarri zaizkigu bide berriak urratzen joateko!

"Momentua bizitzea" aldarrikatzen duzue *Il cercatore di perle* azken diskoan.

Diskoan "orain eta hemen" dioen filosofia sarrera gisa erabiltzen dugu kantu baten bidez, eta zuzenekoetan mezu hori zabaltzen

Inoreneroni taldea

Taldeakideak:

- Eneko Abrego "Okene", ahotsa.
- Borja Iglesias, gitarra.
- Mariano Hurtado, baxua.
- Iñaki Guantxe, bateria.

Diskografia:

- Inoren Ero Ni (Metak, 2004).
- Gronhölms (Bidehuts, 2008).
- Fosbury (Bidehuts, 2009).
- Fregoli (Bidehuts, 2011).
- IENNEI (Bidehuts, 2016).
- Il cercatore di perle (Bidehuts, 2019).

saiatzen gara. Alegia, ahaztu buruan dabilkizun kezka hori, ahaztu lehenxeago ez dakit no-rekin eduki duzun eztabaida hori, ahaztu bihar zeintzuk diren egin beharreko eginkizunak... Zuzeneko kontzertu batean zaudete, eta goza orain eta hemen. Errepikaezina izaten baita bizi dugun una, errepikaezina ze espazioetan gauden, zertan ari garen, norekin...

Autodidakta izan zara beti, eta aho-tsa gero eta landuagoa duzula aitortu izan duzu.

BAPEkin hasi nintzenean, garra-si egiten nuen kantatu baino

"LAU MUSIKARIAK LAGUN MINAK GARA, ELKAR ULERTZE MAILA HANDIA DAUKAGU ZUZENEAN"


ANDOAINGO UDALA



**ZAUDEN LEKUAN
ZAUDELA GOGORATU**

BAIETZIK GABE EZETZ DA



Cambridgeko azterketen prestakuntzarako zentro homologatua.

Prestakuntza trinkoa: Cambridgeko azterketak ekainean eta uztaillean.

2021-22 ikasturterako matrikulazioa zabalik

Tolkien, ingelesaren sinonimo Andoaingen

Ondarreta 7, behea. ANDOAIN. 943 300 839

www.andoainenglish.com

gehiago. 80ko hamarkada zen, eta musikaren kontzeptu jakin bat zen nagusi, punkaren inguruan egundoko eztanda gertatu baitzen. *“Egin ezazu zeuk, nahiz eta ez jakin; ahal duzulako!”* zen punkaren leloa. Premia horrekin hasi ginen lagun batzuk, BAP osatuz. Hala ere, bigarren diskoaren bueltan haustura gertatu zen hasierako formazio horretan, eta Jon Oiartzun 'Jones' eta Mikel anai erantsi zitzaizkigun taldera, oso musikari bikainak. Xabier Olazabal 'Drake' eta bioi ikaragarritzko bultzada, eragin zigun horrek: 'Drake'-k, musika formazioaren ikuspegitik txistua jotzen besterik ez zekien orduan, eta ikustekoa da geroztik eman duen eboluzioa eta egun nolako ospea daukan estatu mailan bazu-jole gisa.

Neu ere etengabe ari naiz aho-tsa hobetzen, eta gogoko dut kantuen melodia eta doinuekin uztartzea, tonuak aldatzea, efektuekin distortsionatzea... Diber-tigarria egiten zait jolas hori, eta kantariaren figurarekin bat datorren eboluzioa dela iruditzen zait. Aspalditik jarraitzaile izan ditudan batzuren batzuk azken aldian zera aitortzen didate: *“Aizak, Okene, ondo abesten eta guzti hasi haiz azkenean!”*. Eta nik erantzuten diet, *“berrogei urtetan zerbait ikasiko al nian!”*.

Tronpeta jotzen ere hasi zara...

Ez daukat formazio akademiko-rik musikagintzan, eta ez dakit zer diren solfeoko fa, mi, la... Baina tronpetari heldu diot azken aldian, inprobisazioa dut ipar eginkizun horretan ere. Haizea sartzen diot musika-tresna horri, tarteka zerbait entzungarria lortzen dut, eta bestetan desafinatu egiten dut.

-Gailu proiektua berriro plazaratze-ko asmoa duzue Mikel anaiak, Ola-

zabal 'Drake'-k eta hiruek, hoge-i urtez lozorroan eduki eta gero...

Ezusteko polita izan da 'Drake' eta Mikel anaiarekin -Gailu proiektua berrindartzea, eta gozaten ari naiz, ilusioa piztu didan egitasmoa baita. 'Drake' eta Mikel hamazazpi abestiek in-entseiatzen aritu dira, eta ondoren Mikelek berak ordenagailuaren fil- trotik pasa ditu, orduak eta orduak igarota jardun horretan. Azkenik, Garate musikate- xeko Martxel Arkarazok egun- doko lana egin du ekoizpenean. Horrela, *Begiak, Egiak Ba Ote?* izenburuko diskoa da prozesu guztiaren emaitza. Hamabi abesti biltzen dira bertan, eta sortu- tako beste bostak errekamara- n gordeta dauzkagu, noiznahi za- baltzeko moduan. Ea gai garen urritik aurrera zuzeneko ema- naldiekin hasteko!

"Gaua" kantuen bideoklipa za- baldu duzue (Aiurriko web orrian ikusgai) aurrerapen gisa. Musika elektronikoa da, hortik jotzen al du diskoak?

Diskoko doinurik “modernoen- a” da zabaldutakoa kantu hori. Aspaldiko bertso batzuk musi- katzen ditu, eta aitortu behar dut harriduraz begiratzen niola hasieran, kostatzen baitzitzai- dan irudikatzea bertsogintza eta erritmo modernoak, elkarrekin. Denboraren poderioz, baina, ulertu dut ezin egokiago kabitzen dela diskoan, gainerako abestiek- in batera.

Fermin Muguruzak promozio- ko kritika idatzi digu diskorako, eta *rural elektro hard-core* gisa definitu du gure proiektua. Zer- baitetan asmatu duela esan dai- teke, ez baikara hirikoak; herrian dauzkagun sustraiak, eta gauzak egiteko edo musika ekoiztu eta adierazteko orduan antzematen da jatorri hori.



Belako taldea. ROCKINGINBILBO

Andoaingo Rock Jaialdia, larunbatean



Angel Kaplan Asturias aldeko taldea da. LNE



AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus



ikastolenelkartea



*San Joanetan,
mingaina euskaraz jarri dantzari.*



MUJKA TOLARETXIPI ANAIK
MAPFRE



**Eskola kalea, 8
ANDOAIN**
943 592 307
Faxa: 943 300 161
imujika@mapfre.com

GORA ANDOAIN

"Urtez urte handitzen doan jaialdia da Andoaingoa"

J.A. ARETA GOÑI "JUXE" ANDOAINGO ROCK JAIALDIKO ERAKUSKETAKO ARGAZKILARIA Larunbatean rock-jaialdira hurbiltzen direnek atzera begirako erakusketa topatuko dute Basteroko erakusketa-gelan. Zabalik izango da uztailaren 3ra bitarte



Andoaingo Rock Jaialdiak nazioarteko talde ugari deskubritzeko aukera bikaina eskaini ohi dio musikazaleari. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Joxe Angel Areta Goñi 'Juxe' Errenteriako argazkilariak argazki-erakusketa ipini du Basteron, uztailaren 3a bitarte ikusgai. Argazkilaria eta rock zale amorratua izanik, Andoaingo Rock Jaialdiko edizio guztietan aritu da argazkiak ateratzen, eta horietako ikusgarrienak hautatu ditu Basteron erakusteko. Jaialdiaren arnasa eta espiritua sentitu litezke argazki bilduman.

Zer ikusiko du erakusketa gelara hurbiltzen denak?

Edizio guztietan atera ditudan argazki mordotik, 76 hautatu ditut. Analogikoki zein digitalki ateratakoak, zuri-beltzean nahiz koloretan. Jaialdiaren historia modu xumean bildu dezakete, nahiz eta ez egon jaialditik igaro diren artista guztiak, hori ezinezkoa zelako espazio kontuagatik. Batek pentsa dezake musikariak eszenategian zuzenean ari direneko argazkiak direla guztiak, baina hori baino gehiago da erakusketa. Beti saiatu izan naiz musikariaren erretratu pertsonalak lortzen, eszenategian nahiz eszenategitik kanpo, kalean, kamerinoetan... Plazan gozatzen ari den publikoak ere bere tokia hartzen du erakusketan.

Nafarroa plazan, alde batetik bestera etengabe mugitzen ikusten zaitugu, kamera eskuetan. Milaka irudi aterako dituzu jaialdi bakoitzeko...

Ez pentsa, milaka ez baizik ehunka batzuk. Jendeak oholtzan ikusiko nau hara eta hona, baina askotan ez naiz disparatzen ari. Gehiago ari naiz argi egokia bilatzen, musikariaren postura on baten zain... Kontzertua kameraren bisoretik kontenplatzea ere gogoko dut maiz, denbora

puska batean egon naiteke horrela.

Argazkilaria eta rock zale amorratua izaki, bi zaletasunak uztartzeko modurik topatzen al duzu?

Izugarri gozatzen dut, badakit biren larrutan sartuta bizitzen Jaialdia. Pribilegiatua sentitzen naiz. Une jakin batzuetan, gelditu behar izaten dut, eta zera ohartarazi buruari: *"Hi, lanean ari haiz, ez haiz jarraitzaile bat!"*. Badakit Nafarroa plazan jende ugari gozatzen duela; bada, ni ez naiz atzean geratzen.

Zer dauka berezirik Andoaingo Rock Jaialdiak?

Urtez urte handitzen doan jaialdia da. Makro-festival famatuaren antzik ez dauka, xumeagoa da, baina badu bere xarma. Plazan dagoen publikoa ere anitza da, gurasoak, umeak... Doan izatea ere lagungarri da. Etortzen diren artistak pixka bat flipatu egiten dute Nafarroa plazan begi-bistan jartzen zaien panoramarekin. Eszenategitik gertu gertu, denetik topatzen dute: parkeko kulunkan umeak jolasean, adin askotako publikoa eta batzuk igual ez dutenak rockzalearen profilarekin bat egiten, tabernak ere inguruan, ikusleak hurbildu egiten zaizkie eta eurekin natural hasten dira solasean merchandising-eko mahaletan... Nik uste gogoko dutela herrikoitasun eta gertutasun hori; eta azkenean, antzeman egiten zaie musika jotzeko orduan.

"ROCK JAIALDIKO EDIZIO GUZTIETAN ATERA DITUDAN ARGAZKI GUZTIEK 76 AUKERATU DITUT"

LAN ESKAINTZA
Esperientzia duen pertsona euskalduna behar dugu Andoaingo kafetegi batean
GORA SANJUANAK!
665 704 126

BRIKO GOROS
Gora Sanjuanak!
GOROSTIDI Burdindegia
Kale Nagusia, 3
Andoain
620 881 472
www.brikogoros.com

Ikuspegi pertsonaletik, jaialdia Andoainen kokatzeak badauka arrazoi erantsia. Lagun mordoak daukat bertan, Gazte-xera-eta maiz joan izan naiz kontzertuetara-eta, eta, bestalde, bertako Zine eta Bideo eskolan ikasitakoa naiz.

Musikariak erraz uzten al dira erretratu pertsonalak ateratzen?

Ez dute inongo arazorik jartzen, normalki. Aurrez azaldu egiten diet zertan nabilen, eta, gainera gogoko izaten dut eurekin hitz egitea honetaz eta hartaz, euren diskoak erostea... Bestalde, jaialdiko antolakuntzako jendea ezagutzen dut eta tarte-ka laguntzea egokitzen zait, nire furgona-rekin musika-taldeekin gidariarena egitea eta abar. Elkarren arteko tratua sortzen da horrela, eta, jakina, erraztu egiten da musikariek nigan konfiantza jar dezaten.

Argazki bakoitzak oroitzapen jakin bat ekarriko dizu gogora. Bakoitzak bere istorioa edukiko du... Baten bat kontatzeko modukoa?

Guztiek gordetzen dute istorio propioa. Bakoitzaren aurrean jarri, eta puska batean egon ninteke kontu kontari. Burura



Joxe Angel Areta Goñi 'Juxe' Errenteriako argazkilaria, Bastero Kulturgunean dauden argazkien artean. AIURRI

oraintxe datozkidan batzuk aipatzake: Ivan Julian eta Capsula taldea kamerinoan eserita atsedenean; The Nomads Suediako garaje estiloko formazioa eszenategian sutagarrean; Bob Log gizon-orkestra bere janzkera xelebrea eta guzti, Johnny Casino australiarra bere saioa amaitu bezain pronto gitarraren hariak apurtu zituen unean; Penny Lkinger bere gitarra ferekatzen; The Budd Shakers taldeko abeslaria umeei auto-grafoak sinatzen, artisten eta publikoaren arteko konplizitatea irudikatzen duen instantea...

Argazkilaria profesionala al zara?

Bai, kostata ateratzen den lanbidea izan arren. Estudioa eta argazki galeria daukat Errenterian bertan, paisaiarekin lotutako erretratuak ateratzen ditut, argazkigintzako ikastaroak antolatzen ditut...

"LAGUN UGARI DITUT ANDOAINEN, GAZTE GARAITIK. ZINE ESKOLAN IKASITAKOA NAIZ, GAINERA"



UDAKO ESKOLAK

Aurrez aurrekoak
Online
Intentsiboak

ACADEMIA GF ANDOAIN


688 612 020


@ACADEMIAGFANDOAIN



Olloki
Gora Sanjuanak
Goikoplaza, 6-7
Andoain 



943 300 603

Gora Sanjuanak!
Aterpe
Goikoplaza 7
ANDOAIN
943 117 986
672 725 978

Gora Andoain!
AKER BELTZ
T A B E R N A

Nafarroa plaza, 1B
943 300 846



andoaINDARRA
euskaraz



Abesbatza Heldua, Katrin Iturralde zuzendari duela. AIURRI



Abesbatza Gazteak abestiak koreografiarekin jantzi zituen. AIURRI

Amaiera ona ikasturteari

Basterok herritar askoren artean interesa pizten duen emanaldi bikoitza jaso zuen, aurreko asteburuan. Alde batetik, Udal Musika Eskolako abesbatzen emanaldia. Eta, beste aldetik, Udal Musika Eskolako Bandarena. Ikasurte zailari amaiera ona eman diote

Xabier Lasa ANDOAIN

Udal Musika eskolako musikari eta abeslariak kontzertu bana eman zuten Basteron, joan den asteburuan. Pandemia dela-eta nahiko atzenduta dagoen musika lau haizetara zabaltzeko irrikatan hartu zuten oholta Musika Eskolako kide guztiek, egia esatera. Katrin Iturraldek zuzenduta, txikien, gazteen eta helduen hiru abesbatzek estilo guztietako egileen (Xabier Sa-

rasola, Lorenz Maierhofer, Jay Althouse, Greg Glin, Billy Joel, Josu Elberdin, Nicholas Ashford eta Valerie Simpson, Javier Busto...) obrak biziberritu zituzten, ostiral arratsaldean. Mikel Emezabalek zuzentzen dituen instrumentu joleek, berriz, igandean hartu zuten lekukoa.

Bi zatitan banatu zen Bandaren kontzertua. Alde batetik, Sorozabal, Rossini, Gaztelumendi eta beste zenbait konposatzaileen

obrekin Musika Eskolako musikariak izan ziren protagonistak. Beste alde batetik, Bandak Basterora gonbidatu zituen lau musikari eta bi dantzarien esku geratu zen. Musikariak, Myriam Ulanga eta Imanol Iribarren pianojoleak, Ane Urkizu esku soinu jolea eta Mikel Emezabal klarnete jolea, Musika Eskolako irakasleak lauak; bi dantzariak, berriz, Bakartxo Arabaolaza eta Joseba Pagola, areto dantzen

irakasleak eta bikote gisa mundu mailako tangoaren eszenategian ospea irabazita daukatenak. Seikoteak Astor Piazzolla musikagile handiari omenaldia egin zion, bere hiru pieza interpretatuz eta dantzatzuz.

Eskolako musikarien eta abeslarien jokabidea

Igandean aurkezpen lanak egin zituen Ainhoa Aiertzak musika eskolako musikariak goraipatu zituen, publikoaren txaloak jasoz. "Burbuilan entseiatu behar izan dute, baina beren jarrera, ilusio eta jarrerari esker, publikoari

kontzertu eder bat oparitu diote". Laudorio horixe abesbatzako kantariengana ere luza daiteke, hitzez hitz.

Ostiraleko eta igandeko kontzertuek beste behin ere argi utzi zuten gizarteak musikaren eta kulturaren zenbateko premia duen. Aiertzak igandeko emanaldiaren amaieran adierazita-koak laburbildu dezake uste hori: "Adituen esanetan musikak antsietatea murriztu, immunitate sistema indartu, baikortasuna areagotu egiten du. Beraz, jarrai dezagun kultura eta musikaren aldeko apustua egiten".

ELIZONDO
FERRETERIA TABERNA
GORA SANJUANAKI!
La Salle etorbidea, 1- Andoain
Ferreteria 943 590 302 Taberna 943 592 802

S2
SALKIN
bertatik bertara
Denon artean lortuko dugu!
Gora Sanjuanak!
Herria bizirik!
Erosi Andoainen



Gazte ugari jotzen du Bandan, klarineteen eta flauten ataletan batik bat. AIURRI

Musika Bandako musikariak:

- Flauta-joleak: Xabin Mujika, Maria Aizpurua, Olatz Dieguez, Maier Ortega eta Aiala Irulegi.
- Klarinete-joleak: Claudia Alduncin, Aizpea Oria, Ander Otxoa, Irene Requeijo, Iosu Mujika, Maria Carrera, Eider Jalon, Josu Otxandorena, Leire Barquero, Maddi Elizasu, Ander Julian eta Oier Moreno.
- Saxo-joleak: Agustin Mazkarian, Markel Rabadan, Txisti Ariztimuño, Ibon Manterola, Igor Ruiz eta David Gutierrez.
- Tronpa-jolea: Koldo Salaberria.
- Tronpeta-joleak: Jaime Eguzkitza, Ander Egaña, Alex Huitzi, Xabier Ibarguren eta Tomás Belver.
- Tronboi-joleak: Juanfe Moyano, Xabier Otamendi eta Txomin Urdanpilleta.
- Bonbardino-jolea: Imanol Iribarren.
- Tuba-jolea: Joxeba Huitzi.
- Baxua: Txitxu Castro.
- Perkusio-joleak: Iñaki Urruzuno, Julen Barrio, Axier Oria eta Gorka Otamendi.

Abesbatzetako abeslariak:

- Abesbatza Txikia: Shadha Ali Abdullah, Libe Arruti, Inge Azpiroz, Maialen Cester, Intza Elordi, Iraia Etxeberria, Jone Gaston, Vera Flores, Ekai Izagirre, Noa Mota, Irati Nuñez, Laida Rabadan, Olaia Rivas eta Ane Ruiz de Gauna.
- Abesbatza Gaztea: Izaro Aginaga, Naroa Asensio, Elaia Cayetano, June Etxeberria, Arai Etxeberria, Laida Gaston, Udane Gorospe, Nerea Iturralde, Eneritz Jauregi, Maren Jauregi, Ekiñe Lasa, Leire Nuñez, Izaro Placencia, Libe Santillana eta Lore Sarasola.
- Abesbatza Heldua: Javier Aguirre, Arantxa Alkain, Ana Almuedo, Miren Maite Ansa, Ixiar Ansa, Ana Maria Aramburu, Ester Arizmendi, Garbiñe Ariztimuño, Iosu Arozena, Andoni Arribillaga, Nerea Boyero, Iosu Brosa, Edurne Calleja, Txitxu Castro, Emi Clemente, Jokin Esnal, Agustin Fernandino, Lourdes Figueras, Mikel Franco, Juan Manuel Garcia, Belen Gonzalez, Ricar-



Bakartxo Arabaolazak eta Joseba Pagolak tango erakustaldi bikaina eskaini zuten. AIURRI

do Guarretxena, Josune Irazu, Matias Jauregi, Filo Julio, Eider Lizaso, Maria Carmen Martiarena, Julia Martin, Inmaculada Melero, Mikel Mendizabal, Victor Muñoz, Ramon Olazabal, Sofia Quilez, Paco Rubio, Txitxu Ruiz, Eukene

Ruiz, Luisa San Sebastian, Xabier Sanchez, Francisco Sandoval, Mari Jose Satrustegi, Gloria Telleria, Iñake Treku, Jose Luis Ubillos, Lupe Ugarte, Ane Ulanga, Juncal Ulanga, Juanjo Usandizaga eta Helena Zubillaga.

Bideo sorta zabala

Aiurri bi emanaldietan izan zen, eta ostiral gaueko nahiz igande eguerdiko kontzertuetako grabazioak egin zituen. Interesa duenak Aiurri.eus gunean sartu eta bideoak atalean klik egitea besterik ez du.



Sorabilla auzoa, 218
20140 Andoain
Tel.: +34 943 30 40 70
Faxa: +34 943 59 41 31
info@itasa.es



IRITZIA

FELIPE IZAGIRRE URNIETA

Memoria osoa, bizikidetzaren alde



Ekitaldi ofiziala Gasteizen, ekainaren 1ean. AIURRI



Memoria taldeek agerraldia egin zuten, memoria osoa aldarrikatuz. AIURRI

Duela gutxi inauguratu berria da Gasteizen Terrorismoaren Biktimen Oroimenezkoa. Madrilen sorturiko proiektua da, PPren Gobernuak garaikoa eta ez dute kontutan hartu hemen, Euskadin, badagoela Gogora izeneko erakunde bat. Zuzen-zuzenean ETaren biktimak ditu erdigunean eta motibazio politikoko indarkeriaren biktimen legian jasotzen direnak ez dira Memorialean aipatzen. Gogoan dut Florencio Dominguez, Memorialeko Biktimen Presidenteak eta Aintzane Ezenarro, Gogora koak hitzaldi bat eman zutela Koldo Mitxelena Liburutegian. Galdetu ere, galdetu nien ea nolatan bururatu zitzaizen Gogora Oroimenezko Erakundea Euskadin izanda, beste bat Gasteizen sortzea. Egia esan, Dominguez, handik eta hemendik saiatu zen erantzun garbi bat

ematen baina, ezer garbirik ez. Aintzanek, berriz, ez zekien nolako aurpegia jarri; formalismo hutsaren garaian bizi gara.

1960tik 2021era indarkeria mota ezberdinek eragindako biktimen omenezko museoa da Gasteizkoa. Terrorismoak eragindako biktimei aitortza egitea da museoren helburua, baina beste ezeren gainetik, ETak eragindako biktimen memoria gordetzeko gunea izango da. Lehen argazki hau, beraz, Erregea, Espainiako Presidente, Urkullu eta hainbat eta hainbat erakundeetako buru eta partaideak: denak dotore, bakoitza bere lekuan momiak bailiran, eta erdian Erregearen diskurtsoa non beste bitxikerien artean esaten zuen oroimenak pertsona duindu egiten duela. Hor agertzen direnak izango dira besteok ez garelako hor agertzen. Guk ez al dugu oroimen

mena merezi eta, ondorioz, duintasuna? Historiaren ironiak. Memorial horretan torturatzailerak daude, torturatuak ez. Nik neuk ere maketa bat diseinatu nuke Donostiako Gobernu Zibilean pasa nituen hiru egun gogor haien gune, gela eta ibilbideekin. Baina, baztertu gaituzte, memoria kendu nahi izan digute, ez dugu duintasunik. Horregatik diot historiaren ironiak.

Halere, zeru ilunean beti agertzen da izar dirdiratsuren bat eta Gasteizko argazki hotz, sentimendurik gabekoaren ondoan memoria osoa aldarrikatzen dutenen pankarta bat agertu zen: "Memoria osoa, bizikidetzaren alde". Hor zeuden Euskal Herriko talde memorialistak memoria osoa eskatzen eta memoria oso horren ondorioz bizikidetzaren alde ere eskatzen. Argazki

inklusiobagoa, ez baztertzailerak, eta memoriari lotua, memoria gabe ez baitago benetako bizikidetzarik, eta bizikidetzak ez badu memoriarik bizikidetzatik ezer ez luke. Bi argazki, bata bestearengandik erabat ezberdinak. Lehen argazkian egon zirenetako askok agertu behar dute nolatan edo zertan oinarritzen duten beren presentzia Jaurlaritzaren irizpideak ere betetzen ez dituen Memorial horretan.

Memoria osoa eskatzen zuten bigarren argazkikoek. Halaxe da, baina hori aurretik esanaz eta frankismo garaikook ere hor egon behar genukeela aitortuz, Gasteizen Martxoaren 3an izandako sarraskian hildakoak ekarri nahi ditut. Urte hauetan lan bikaina egin dute egun haietako oroimena gaurkotzeko; egunero ko lan isilean han-hemenka he-

datu dute egun haietako oroimena. Argentinarraino joan ziren, eta ni lekuko, eta han jarri zuten kereila Servini epailearen aurrian. Gasteizen ere hamaika saiotan bildu dira hiriburuko agintariekin oroimen hori gal ez dadin. Baztertu dituzte baina Gasteizko herriak, seguruenik, gogoan ditu egun haietako krudelkeriak, eta hori da garrantzitsuena. Ulertezina da nola onartu duten agintariek horrelako txantajea. Asko aipatzen dira marra gorriak, bada hor marra gorrietatik haratago joan dira, marra gorri oro gainditu dituzte.

Euskal Herriko zenbait Herri-tan oraingoz gerra denborako ikerketa burutzen ari dira. Urnietak ere egin du 1936-45 bitartekoa. Interesgarria, dudarik gabe. Baina uste dut oraindik bidea luzea dela Giza Eskubideen urraketa guztiak aztertu, eta Justizia eta Erreparazioa lortzeko. Bide hori beharrezkotzat dut benetako bizikidetzaren lor dadin.

Honen harira, eta memoria osoa lortu asmoz, Madrilen aurkeztu zuten Pili Zabala eta Maixabel Lasaren alaba, Maria Jauregik, zeharkako ekimen bat, zeinetan beste jende asko ere sartzen den, eta non eskatzen duten bere anaiaren kasua eta beste zenbait argitu eta Justizia, Errekonoizimendua eta Erreparazioa eman daitezen. Zeru beltzean izartxoak dira dir-dir egiten. Memoria osoa eta bizikidetzaren lagunduko dutenak.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idezkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Urnietak).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

Aiurri eskuragarri: Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra: Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus [@aiurri](http://www.aiurri.eus)

EKOIZLEA:

ALIATUAK:

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

ZIURTAGIA:

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



POSTONTZIA

MARI JOSE IZAGIRRE ANDOAINGO UDALEKO SUSTAPEN EKONOMIKO, ENPLEGU ETA GAZTERIA ZINEGOTZIA

Sorginen hegaldia

Andoaingo Udalak 20 urte baino gehiago daramatza Leitzaran bailararen ingurumen balioa azpimarratzen, babestu eta zaindu beharreko naturagune gisa. Ordutik, hainbat proiektu eta jarduera egin dira naturagune hori errekuiperatzeko, egokitze-ko eta espazio hartan dauden ala harekin konektatzen duten azpiegituren segurtasuna hobetzeko.

Oraindik ere gogora datozkit inolako kontrolik gabe kudeatutako akanpada-turismoaren urte haiek. Zaborra edonon pilatzen zen garaia, inguru hidraulikoari egindako kaltea eta antropizazio kontrolgabea bera. Zorionez, aspektu horiek lehengoratu egin dira, adostasunetik bultzatutako politika publikoei esker, eta gero eta helduagoa eta inplikatuagoa den gizarte baten konplizitatearekin. Hala, azken urteetan bultzatutako zenbait ekintza azalduko dizkizuet:

Bide berdea: Arantzibia eta Auzokalteko zubibideak lehengoratu dira, trazadura eta segurtasuna hobetuz, tunelak barne. Erabiltzen ez ziren eta hondatuta zeuden antzinako azpiegiturak berreskuratu dira eta oinezkoentzako bideak egin dira leku haietan. Lizarkolako kanalaren kasua da hori, tokiko bidezidor homologatu bihurtu dena eta inguru hura Andoaingo herrigunearekin, Otietako parkearekin, Bertxingo zentralarekin eta Bide Berdearekin lotzen duena.

Andoaingarrentzako eta bisitariarentzako bidezidor homologatuen sarea sortu da.

Leitzaran bailaran ibilgailuen trafikoa arautu da (iaztik, haranera sartzeko errepidea itxi egin da, jendetza ekidin eta mugikortasun jasangarria sustatzeko).

Otietako eta Olazarreko landa-parkeak berroneratu eta egokitu dira, Leitzaran haranaren barrualdera jende asko ez piltatzeko koltxoi-gune izan zitezen.

Halaber, hainbat bilera egin dira erakundeekin eta tokiko nahiz udalaz gaindiko eragileekin, Leitzaran Bailara Parke Natural izendatzeko behar diren urratsak emateko.

Leitzarango Bisitarien Etxea irekitzearekin batera, 2016an Natura Turismoaren aldeko apustu irmoa egin zen, *Slow Adventure* edo abentura lasaian oinarritutako eskaintza, zeinarekin iraunkortasuna, irisgarritasuna, kultura eta tokiko ondarea ezinbesteko baliabide gisa kontuan hartuko baitziren.

Aurrekari horiekin, logikoa da pentsatzea ingurumen-jasangarritasuna funtsezko premisa izan dela eta izaten jarraitzen duela Leitzaran Bailararen inguruan edozein proiektu abian jartzeko.

Hala, 2016an aire-ibilbide naturalistiko gidatuaren proiektua egiten hasi zen (Sorginen hegaldia izenekoa), sarrera Bisitarien Etxetik bideratuta. Horretarako, bi azpiegitura erabiliko lirateke:

Leitzaran ibaia zeharkatuko lukeen tirolina txiki bat eta ibilbide laburreko Via Ferrata bat, aipatutako ibilbidearen goiko aldera iristeko.

Andoaingo Udala osatzen duten alderdi guztiek (EHBildu, PSE-EE, EAJ-PNV eta Ganemos/Irabazi garai hartan, Podemos gaur egun) oniritzia eman zioten proiektu berritzaile horri. Eki-mena sustatzeko adostasun zabala.

LEADER funtsek (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa) ia %80an finantzatutako proiektu hori egiteko, premisa hauek hartu dira kontuan: Eremuan ahalik eta in-paktu txikiena sortzea; Udalaz gaindiko gainerako administrazioen (URA agentzia, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundia) oniritzi eta baimen guztiak izatea, hala ingurumenekoak, nola segurtasunekoak; Jarduera garatzen den espazioari balioa ematea, hobeto ezagutu eta zaintzeko. Hain zuzen, adibide gisa, proiektu hau egiteak jarduketare-muan zegoen legez kanpoko zaborte-gi bat garbitzea ekarri du. Ibilbide honen inguruan bisita gidatuak egitea da azken premisa, betiere gidari espezializatu batek gainbegiratuta eta egunean sar daitezkeen bisitarien kopuru mugatuarekin.

Honenbestez, iraunkortasuna funtsezko zutabea izan da proiektu honen diseinuaren proposamenerako, tokian tokiko ingu-

rune fisikoari eta habitatei kalterik ez eragiteko. Ingurumenari buruzko azterlanak adierazten digu eremu horrek gehienez ere egunean 30 pertsona hartzeko ahalmena duela, eta 4 pertsona eta gidari bat bisita bakoitzeko. Obraren jarraipena ingurumeneko langile gaituek egin dute: biologoek, geologoek, ingeniariak, ala Al- dundiko basozainek. Halaber, proiektuaren kudeaketa- eta jarraipen-eredua propioa izango da, eta ingurumen-kudeaketa-ko langile kualifikatuak izango ditu.

Aukera batzuentzat, mehatxua eta eraso beste zenbaitentzat, baina ezin da erabili ingurumenari buruzko argudioa proiektua desprestigiatzeko. Iritzi guztiak errespetatuz, ezin da ukatu ingurumena babesteko politikek proiektu traktoreak behar dituztela, balio biologiko handiko ekosistemetan eragin ahal izateko. *"Hobe bakean dagoena ez ukitzea"* argudio ahula defendatzen duten iritzi *"negazionistek"* egunero egiten dute topo errealitate gordinarekin. Ingurumen-politika eta inbertsio publikorik gabe, ezingo genukeen inoiz gozatu bailaran bultzatutako hobekuntza ekosistemikoaz. Sakondu dezagun beraz ingurumen-politika aktibo batean. Ezer ez egitea, babesgabetea da, atzean geratzea, Leitzaran bezalako espazio baten etorkizuna zortearen eskuetan uztea da.

Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Ekainak 3-15:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 86,74.
- **Ekainak 2-8:** 10 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 173,47.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:** 16 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 180,14.
- **Maiatzak 19-25:** 11 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 93,41.
- **Maiatzak 12-18:** 3 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 120,10.
- **Maiatzak 5-11:** 15 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 246,86.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:** 22 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 326,93.
- **Apirilak 21-27:** 27 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 433,68.
- **Apirilak 14-20:** 38 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 447,02.
- **Apirilak 07-13:** 29 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 373,63.

URNIETA

- **Ekainak 3-15:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 257,69.
- **Ekainak 2-8:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 161,06.
- **Maiatzak 26-Ekainak 1:** 2 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 128,85.
- **Maiatzak 19-25:** 6 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Maiatzak 12-18:** 8 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 241,58.
- **Maiatzak 5-11:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:** 7 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Apirilak 21-27:** 18 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 595,91.
- **Apirilak 14-20:** 19 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 660,33.
- **Apirilak 07-13:** 22 kasu positibo. Intzidentzia tasa: 402,64.



- **Asteroko zozketa:** KM0 produktuez betetako otarra.
- **Irabazleak:** Iraola, Arratibel, Aranburu, Izaro, Jonathan.





Bigarren Hezkuntzako Guraso elkarteko hainbat kide. AIURRI

"Urnietak Egape behar du"

Orain mende laurden proposatu zen lehen aldiz Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzako eraikin berria egiteko asmoa. Egun, burutu gabe jarraitzen du proiektuak. Guraso elkarteak ez du amore eman, ordea

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Iragan mendea hastearekin batera ireki zituen lehenengoz ateak, egun, Egape Ikastolako Bigarren Hezkuntzako eraikina denak. Hamarkadaz hamarkada aldaketak jasan baditu ere, oinarriak berbera izaten jarraitzen du. Hala, orain hogeita bost urte, gutxi gorabehera, mahaigainerratu zen lehenengoz Bigarren Hezkuntzako eraikin berriaren proposamena; alabaina, duela gutxi ekin diote berriro ere eraikunde politikoei gaia jorratzeari, makina bat urtez aurrerapausorik eman gabe egon ostean: Eusko Jaurlaritzan jada onartuta dago proiektua. Eraikina altxatzeko, lur-sail urbanizatua behar du, eta hori esleitzea Urnietako Udalari dagokio. Azpiegituraren dekadentziarekin larrituta bildu zen orain urte batzuk Egapeko komunitatea.

Tartean, Guraso elkarteak dago lanean buru-belarri.

Zergatik sentitzen duzue beharrezkoa eraikin berria?

Hutsune handia nabari dugu. Gabezia handiak ditu eraikinak: ikusten dugun orain arte behintzat alboratutako gaia izan dela, nahiz eta alderdi politikoei (hauteskunde-kanpainan, besteak beste) beren agendan txertatzen duten kontua izan. Aitzitik, errealitatean ez da sekula egi bihurtu hori. Beraz, ikusten dugu badela garaia gaiari irmoki eusteko.

Azpiegitura aldetik, gabezia handiak al ditu egungo eraikinak?

Arkitektonikoak, hasterako. Elbarri batek, esaterako, ezingo luke eskolara sartu, makina bat arazo izan gabe. Eskubide bat urratzen dela deritzogu, eta horixe da abiapuntua. Pandemia medio, gainera, areagotu egin

dira gabeziak, begibistan gelditzeraino. Zaharkituta egoteaz gain, anbulantziek edo suhiltzaileek ezin dute eskola-eremura sartu. Inguruko etxebizitza guztiak ikuskatu eta berritu dituzte, ez, ordea, DBH-ko eraikina. Ez dago legearen barruan; falta larri bat da. Bestalde, gelak oso txikiak dira, paretak oso zaharkituak daude. Esanak esan, eskolako langileen ilusioak betetzen du eraikinak eragindako hutsunea.

Zuetako hainbat Egapeko ikasle zinetela azaleratu zen lehenengoz eraikin berriaren proposamena.

"ESKOLAKO LANGILEEN ILUSIOAK BETETZEN DU ERAIKINAK ERAGINDAKO HUTSUNEA"

Egun, guraso zarete, eta proiektuak burutu gabe jarraitzen du.

Adarra jo digutela sentitzen dugu. Bai, zurrumurrua hor dago, baina egitasmoak gauzatu gabeko egitasmo izaten jarraitzen du. Orain, zorionez, aurrerapausoak ematen ari direla ikusten ari gara, poliki edo nahi baino polikiago.

Gutako askoren seme-alabek aurki utziko dute Egape, eta ez dute eraikin berrian ikasteko aukera izango. Alabaina, inork ez badu ezer egiten, berdin jarraituko du honek.

Azken hilabeteetan gaiak beste erritmo bat hartu arren, atzera begira ipinita, Udalak barkamena eskatu beharko lioke herriari: orain urte asko mahai-gaineratu zen lehenengoz asmoa, eta oraindik ez da ezer egin, kasik. Autokritika egitea egokia litzateke.

Azken mendean, Urnietaren mugarri handia izan da Egape. Afera zaharra da eraikina. Iragan urtean, 2020. urteko udal batzar batean honako mozio hau onartu zen: Eusko Jaurlaritzari eskatzen zioten eraikina errealitate bihurtzea. Egia esanda, Eusko Jaurlaritzak egin ditu bere gain dauden zeregin guztiak. Oztopo gehienak udal erakundetik datoz, nahiz eta azken boladan aurrerapausoak ematen ari diren.

Legebiltzarrean gaia mahai-gaineratu zenean ikusi genituen lehen aurrerapausoak. Egia da horrelako prozesuak mantso

egiten dutela aurrera, baina, gure ustez, hainbat egoeratan, polikiagi, edo behintzat azkartzeko borondaterik gabe. Horixe izan da gure sentimendua.

Guk argi dugu auzia ez dela politikoa, alegia, gu ez gaude politika kontuengatik hemen. Gainera, uste dugu gardentasunez jorratu nahi izan dugula gaia: Urnietako hiru alderdi politikoei elkartu gara eta proiektu komun baterako bidean batera arraun egitea proposatu diegu. Gu ez gatoz politika egitera; gure helburua eraikina da. **Zuen seme-alabek dastatuko ez duten eraikina da. Zergatik jarraitzen duzue buru-belarri lanean?**

Herriak, Urnietak merezi duela. Guraso elkarteko kide askoren seme-alabek bukatzen dute aurreko Egapeko ibilbidea, baina kontua ez da hori. Pertsonala baino gehiago, kolektiboa da aferra. Hezkuntza publikoaren errespetua merezi du herriak. Gaiari dagokionez, errespetu falta nabari da, herriak duen oinarriko eskubide baten kontrako falta, hain justu.

Oso garbi dugu: herriak Egape behar du. Urnietarren zati handi bat igaro da hemendik; Egape dago heziketa eta baita herriaren etorkizuna ere. Beraz, Guraso elkartearen Egaperen alde borroka egiten dugunean, herriaren alde egiten ari garela sentitzen dugu.

Familia batek hezkuntza publikoaren bidetik jo nahi badu Urnietan, Egape da bere aukera bakarra. Hala, ez baduzu argi hezkuntza publikoaren nahiz proiektuaren alde egin nahi duzula, eraikina ikusita, hezkuntza kontzertatuak edo pribatuak apustua irabazita dauka. **Gabeziak gabezia, arrakastatsua iruditzen al zaizue Egapek duen hezkuntza-proiektua?**

Jakina. Irakasleen lana nabari da. Agerikoa da irakasleen proiektu sendoa, eta horren aldeko borroka. Hezkuntza-proiektu ederra dute Egapeko irakasleek, eta espazio egokiago batekin are aberatsagoak lirateke emaitzak. Zergatik? Azpiegiturak beren jarduna hauspotuko lukeelako. Gogo handiz egiten da lan hemen, eta irakasleek merezi dituzte lan-baldintza hobek. Garrantzitsua iruditzen zaigu nabarmen-tzea eraikinak dituen hutsuneak hutsune, ikaragarria dela Egape Ikastolaren hezkuntza-proiektua. Biziki harro gaude.

Antzezlanak kalean

Olatz Iturzaeta, Elaia Marruedo, Vanesa Sanchez eta Liam San Jose aktoreek osatzen duten Egapexou taldeak 'Notre Dameko plazan' antzezlan antzeztu zuen Etxeberri plazan, joan den igande eguerdian. Antzezlanaren bideoa Aiurri.eus gunean, ikusgai

Xabier Lasa URNIETA

Ipuinetako maitagarrien bailaran, misterioz eta abenturaz beteriko istorioa antzeztu zuen laukoteak, Joxe Mari Berasategi zuzendaritzapean. Emanki-zuna bukatu ostean, Berasategik esker oneko hitzak izan zituen Etxeberri plazara hurreratu ziren antzerki zaleentzat: “Hondartzara joatea baino plan askoz hobe zela Etxeberri plazan antzerki gozatzea pentsatu dute, eta estimatua dago erabaki hori hartu izana. Eguzki batean, 30 gradutara, itzal zati guztiak probestuz, hantxe egon dira adi eta arretatsu, ontzak bailiran, izaki maitagarrien abenturak jarraituz. Aldi berean, nabarmentzekoa da lau aktore puska horien jarrera. Antzerkia



Berasategi, Marruedo, San Jose, Iturzaeta eta Sanchez, Etxeberri plazan. EGAPEXOU

zainetan sartuta daukate, eta igartzen zaie erakusten duten kemenak”. Berasategik gaineratu zuen antzezlan berri bat

prestatzen hasita daudela jada, eta gauzak ondo bidean, datorren udazkenerako plazaratzeko moduan izango direla.



'Urnieta dantzan' emanaldia, Plazido Muxika plazan. UDALA

Plazido Muxika plaza estaltzeko proposamena nagusitu da

Urnietako Udalak herriko zein parke estaltzeko parte hartze prozesua burutu du. Erabakia hartuta dago

Erredakzioa URNIETA

Herriarrek batera, Urnietako Udalak herriko zein parke estali erabakitzeko parte hartze prozesua zabaldu du. 312 erantzun eman dira ontzat, eta horien guztien artetik 117 herrikidek Plazido Muxikaren aukeraren

alde egin dute. Udalak ohar bidez zabaldu duenez, "hau izango da Udalak estaliko duen eremua. Orain, agiri teknikoak egingo dituzte plaza nola estali zehazteko ideia-lehiaketa bat irekitzeko". Etxeberri plazak 72 boto jaso zituen.

IKUSBERA

Laster, uda giroko Ikusbera aldizkaria.

Aiurriko harpidedunek zenbaki berria buzoian jasoko dute!

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Aurten batzarra Aita Larramendi ikastolako jolastoki estalian egin zuten. AIURRI

Talde eragilea berritzeko eskaera, mahai gainean

MENDIZALETASUNA Euskalduna Mendigoizalek Elkarteko kideek urteko batzarra egin zuten Aita Larramendiko pilotalekuan, joan den larunbatean. Guillermo Alcalak, Nerea Buenok eta Fernando Otamendik azaroan ardurekin amaitzeko asmoa agertu dute

Xabier Lasa ANDOAIN

Zuzendaritzak bazkideei diru kontuen berri eman ostean, gai nagusiari heldu zioten guztiek ere: kolokan dagoen elkartearen etorkizuna, alegia. Izan ere, 2019an, lanerako hautagairik aurkeztu ez zenez, lehendik zegoen zuzendaritzak jarraitu behar izan zuen, derrigor. Geroztik, osasun krisialdia sortu zen 2020ko martxoan, eta ohiko jardueraren eten behar izan zuen elkarteak. Azken hilabeteetan, Guillermo Alcalá, Nerea Bueno eta Fernando Otamendi zuzendaritza batzordeko kideek eutsi diote elkartearen martxari, lan administratiboak eginez batik bat.

Zuzendaritza, azarora bitarte

Hain zuzen ere, hirukoteak larunbateko batzarrean adierazi zenez, datorren azaroan utzi egingo ditu oraingo ardura guztiak, eta ordurako jende berriak pauso bat aurrera egin beharko du, baldin eta Euskalduna elkarte bizirik mantendu nahi

bada. Luze jo zuen bazkideen artean piztu zen eztabaidak, eta argi zehaztu ziren zeintzuk diren alderdi baikorrak eta zeintzuk ezkorrak. Mendi elkarte gehienetara zabaldu litekeen diagnostikoa deskribatu zuten bazkideek, era horretan.

Alderdi baikorren atalean, bi dira aipatzekoak, batik bat: Andoingo eta inguruetak mendizaleek estimatzen dute Euskaldunak urtean zehar antolatzen dituen ekintzak (mendi-irteerak, Adarramendin salda-ematea urte-berri egunean, hitzaldiak...), eta horietan handia da parte hartzea. Bestalde, elkarteak kolaboratzaile sare sendoa dauka ekimen anitz horiek gauzatzeko orduan.

TALDEAREN ARDURA DARAMATEN KIDEEK ZUZENDARITZA BERRITZEKO KIDEA BATU NAHI DITUZTE

Alderdi ezkorrei dagokionez beste bi aipa daitezke. Lehenbizikoa, belaunaldi gazteei Euskalduna elkarte ez zaiela erakargarria egiten; nahiago dute euren kasa ibili, gizartearen aisialdiaren arloan gertatzen ari den joera aldaketekin bat eginez. Bigarren- goa, gizartearen orohar gertatzen ari den beste fenomeno bat pairatzen duela Euskaldunak ere: diru irabazirik gabeko elkarteetako ardurazko postuetan inplikatzeko dagoen gogo falta.

Irtenbide zehatzak aztertzen hasita, elkartearen lan administratiboetarako langile bat kontratatzearen aukera aztertu zuten, batik bat. Batzarraren amaieran, berriz, bi erabaki hartu zituzten, etorkizunari begirakoak: irailean bazkideen lan bilera egitea, eta bertan, besteak beste, zuzendaritza batzorde berrirako hautagaiak aurkeztea eta administrari baten kontratazioa aztertzea. Azaroan urteko batzarra egitea izan zen hartu zuten bigarren erabakia.



Nora Mendizabal Plazandreak saioan parte hartuko du berriro ere. 21 IGUALES

Mendizabal Plazandreak saioko bigarren edizioan izango da

PILOTA Pasa den urteko arrakasta ikusita, Laboral Kutxa txapelketa ikusi ahal izango da ETB1 katean

Erredakzioa ANDOAIN

Lehiaketak iazko bideari jarraituko dio, hau da, taldeen arteko lehiaketa bat izango da eta jardunaldi bakoitzean hiru partida jokatu dira; banaka lau t'erdian, binaka eta banakako beste bat. Baina jardunaldiak orekatuagoak eta erakargarriagoak izate aldera, antolatzaileek berritasun batzuk sartu dituzte.

Esate baterako, aurten hiru talde egonen dira, Erlantz Garciairen, Mikel Inuntziagaren eta Reyes Azkoitiaren zuzendaritzapean. Estrategia gisa egiten

duten lanak berebiziko garrantzia izango du aurtengoan, antolatzaileen esanetan. Izan ere, banakako lehen partida jokatzeko duen pilotariak ezin izango du bigarren buruz burukoan errepikatu. Binakakoan, berriz, parte hartu ahal izango du. Esan bezala, horrek estrategiari garrantzia handiagoa emango dio.

Udako astelehen gauetarako eskaintza erakargarria, freskoa eta kalitatezkoa izango dela jakinarazi dute, Euskal Telebistatik. Ez hori bakarrik, emakumezkoen pilota munduari bultzada emateko balioko du.



UTS

Loitegiren debuta Galarretan

ERREMONTEA Urnietarrak duela gutxi egin zuen debuta erremontean, baina denbora gutxian maila oso ona erakutsi du; Oriamendi eskolako txapelketa irabazi du. Gauzak horrela, Oriamendi 2010 enpresak iragarri duenez, ostiralean debuta egingo du maila gorenean, Hernaniko Galarretan.



EUSKALDUNA

Kadeteen denboraldi amaiera

FUTBOLA Euskaldunako kadeteek denboraldia modu onean amaitu zuten, Martutene taldeari gol bakarragatik irabazita. Aurtengoa ez-ohiko denboraldia izanik, entrenamenduak eta norgehiagokak aurrera eramatea erronka latza bilakatu zaie jokalariei zein entrenatzaileei. Dena den, hurrengo urteari begira baikor agertu dira eta gogor lehiatzen jarraitzeko asmoa agertu dute.

Lehen Mailari eutsi diote

FUTBOLA Iker Dorrosororen eta Beñat Erkiziaren Emakumezkoen Eibar taldeak lehen mailari eutsi dio. Denboraldi zaila eta ezegonkorra izan den arren, armaginak gogor lehiatu dira. Gauzak horrela, datorren urtean ere elitean jokatzeko jarraituko dute. Beñat Erkizia Andoaingo prestatzaile fisikoarentzat esperientzia garrantzitsua izan da.



AIURRI



EIBAR

Eibar Urko txapeldun

FUTBOLA Axier Iraola andoaindarra Eibar Urko futbol taldeko atezaina da. Pasa den asteburuan garaipen garrantzitsua eskuratu zuen Beti Gazte taldearen aurka. Ligako txapeldunak bilakatu dira, nahiz eta ezin izan duten hirugarren mailara igoera eskuratu. Ezkerretik hasita, lehena da Iraola.



Ajerrista eta Goikoetxea, azken metroetan. KARLIS



Ajerrista garaipena ospatzen. KARLIS

Goikoetxearen lasterketa bikaina Antzuolan

TXIRRINDULARITZA

Andoaingo eskolako Ajerristarekin batera iritsi zen helmugara

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak Euskal Herriko eta Espainiako errepideetan ibili dira, intentsitate handiko asteburua biziz. Jubenil mailakoak Idiazabalen eta Antzuolan aritu ziren. Mikel Goikoetxea garaipena eskuratzeko zorian izan zen, Uzarraga gainan amaitu zen lasterketan. Karlisen argazkiak adierazgarriak dira, oso.

Kadete mailako mutilak Bizkaian antolatzen den Txuma memorialean izan ziren, Erandion, Leioan eta Berangon etapa bana eginez. Neskak Valladoliden izan dira, Espainiako Kopako proba batean. Izaro Zuria-rrain 44. postuan sailkatu zen, eta Intza Navarro 63. postuan.



Urnietako igerilekua, artxiboko irudian. AIURRI

Urnietako Udal igerilekua, larunbatetik aurrera zabalik

IGERIKETA Segurtasun neurri bereziekin, irailaren 26ra bitarte zabalik izango da eskualdeko erabiltzaileentzat

Erredakzioa HERNANI

Uda iristera da, eta larunbatean hasita Urnietako Udal igerileku irekiak ateak zabalduko ditu. Pandemiaren ondorioz indarrean egongo diren neurri eta protokolo bereziak beteta, noski. Udalak zabaldu duen oharraren arabera, "derrigorrezkoa izango da sarbidean eskuak garbitzea, pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun distantzia mantentzea eta urtean sartu arte uneoro musikoa erabiltzea.

Erabiltzaile nagusiak urnietarrak izango diren arren, Buruntzaldeko bazkideek ere erabiltzeko aukera izango dute: "Igerilekura sartzeko Buruntzaldeko bazkide izatea edo udako igerilekuko abonua edukitzea lehenetsiko da. Gehienezko aforoa 250 pertsonakoa izango da, eta kontrola eramateko erreserba txanda desberdinak ipiniko dira". Hitzorduek alde zuzenetik

hartu behar dira, eta hauek dira aukerak:

- 10:00-13:15
- 13:45-16:45
- 17:15-20:15

Txanda desberdinen artean dagoen ordu erdiko tartea garbiketa eta desinfekzio lanak egiteko gauzatuko da. Txandak hartzeko moduak hauek dira:

- Webgunea: Urniet.eus / APP.
- Telefonoa: 688 720 742.

• Harrera: edukiera bete arte. Abonu familiarra dutenek kide guztientzat hitzorduek hartzeko aukera izango dute, eta aste osorako lekua erreserbatu ahal izango da.

EKAINAREN 19AN ZABALDU ETA DATORREN IRAILAREN 26RA ARTE ZABALIK IZANGO DA

Eskualdeko kirolariak T2T eta T3T lasterketetan

Erredakzioa ANDOAIN

Duela bi urteko edizioarekin alderatuta urnietar gutxiago izan zen irteeran.

T2T 23 KM

Andoain

- 1 Ariznabarreta, Oier 2:06:27
- 27 Ibarguren, Aitor 2:44:10
- 107 Brea Prieto, Alberto 3:24:18
- 142 Barrasa, Diego 3:37:59
- 160 Costas, Ruth 3:48:23
- 161 Olano, Agustin 3:48:30

T3T Maratoia

- 1 Razga, Ismail 4:24:03
- 2 Romo, Jaime 4:24:02
- 3 Ait Chaou, Hassan 4:25:02

Andoain

- 9 Rajado, Asier 4:53:40
- 10 Amantegi, Igor 4:57:22
- 11 Ugalde, Jon 5:04:33
- 70 Iztueta, Lander 6:14:49
- 79 Telletxea, Iker 6:25:12
- 81Arostegi, Jagoba 6:51:49

Urnietako

- 88 Iparragirre, Asier 6:31:20

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 17

URNIETA Aisialdia

Gaztelekuak 11-16 urte bitartekoei zuzendutako egitaraua aurkeztu du. Informazio osoa 608 928 311 eta 683 610 205 telefono zenbakietan. **Izena ematea: Azken eguna.**

URNIETA Aurre-matrikulazioa

2021-2022. ikasturtean euskara ikasteko aurrematrikulazio-epaia zabalik dagoela adierazi dute AEK euskaltegitik. urnieta@aek.eus / 662 338 747. **Azken eguna: Ekainak 25.**

ANDOAIN Kanpaina

"Han edo hemen, erosi Andoainen" kanpaina bonoa erosi dutenek hilabete honetan zehar egin beharko dute erosketa. **Azken eguna: Ekainak 30.**

OSTIRALA 18

URNIETA Antzerkia

"Ubu rey, ¿Las sonrisas son risas?" Udal antzerki tailerraren eskutik. **19:00, Sarobe.**

LARUNBATA 19

URNIETA Aisialdia

Udal igerilekua zabalduko dute, herriko eta eskualdeko erabiltzaileentzat. Informazio gehiago 13 orrialdean. **Ekainak 19-irailak 26.**

ANDOAIN Musika

Andoaingo Rock Jaialdia. Sarrerak gonbidapen bidez: 12:30 Audience. Ondarreta. 15:30 Rudiger. Ondarreta. 17:45 Angel Kaplan. Bastero. 19:00 Inoren Ero Ni. Ondarreta. 21:00 Belako. Bastero. **Bastero, Ondarreta ikastetxean.**

IGANDEA 20

ANDOAIN Deialdia

Pintura, literatura eta argazki lehiaketa, Hogar Extremeñoren eskutik. Oinarriak euren Facebook orrialdean eskuragarri. **Azken eguna: Ekainak 20.**



lazko emanaldia. AIURRI

ANDOAIN Axeri Dantza

Aurreko urtean auzo ezberdinetan aritu ziren, eta aurtengoan saio bakarra eskainiko du Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian. 30 lagun elkartuko dira, aurtengo saioan.

Ekainak 24, osteguna. 12:00, Ondarreta.

ANDOAIN Tailerra

Duela aste batzuk antolatutako txalaparta Master Class-aren arrakasta ikusita, Maizorri txalaparta eskolakoek bigarren tailer bat antolatzea erabaki dute. **10:00. Info: 677 153 442.**

ASTEAZKENA 23

ANDOAIN Tailerra

Aldundiko Ingurumen sailak eta Andoaingo Udalak antolatuta, elektrizitatearen faktura berriari buruzko on-line tailerra. Izen-ematea: 943 164 172/ 605 757 687. **18:00, Argitu.eus.**

ANDOAIN Kontzertua

Gatibu akustikoan. **21:30, Ondarreta.**

OSTEGUNA 24

ANDOAIN Dantza

Axeri Dantza emanaldia. **12:00, Ondarreta.**

ANDOAIN Bertso saioa

Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Agin Laburu, Ane Labaka, Miren Artetxe eta Aner Peritz. Gai-jartzailea: Unai Ormaetxea. **13:00, Ondarreta.**

ANDOAIN Kontzertua

Mikel Urdangarin zuzenean ariko da, "Izurdeen lekua" diskoa aurkeztuz. **21:30, Ondarreta.**

OSTIRALA 25

URNIETA Antzerkia

"Gora Kasete!" antzerkia eta musika ikuskizuna kalean. Euskaraz. **18:00, Etxeberri plaza.**

ANDOAIN Haur ikuskizuna

"Piraten istorio bat". **12:00, Ondarreta.**

ANDOAIN Kontzertua

Chill Mafia eta Dupla taldeak zuzenean ariko dira. Soinu eta estilo berritzaileak. **19:30 / 21:30, Ondarreta.**

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Poliamor para principiantes


Lar., 19. Saiorik ez.
Ig., 20. 19:30.
Astel., 21. 19:30, 22:00.

Nur

Ig., 20. 12:00.

Operacion Camaron

Lar., 26. 19:30, 22:00.
Ig., 27. 19:30.
Astel., 28. 19:30, 22:00.



SINOPSISIA



Poliamor para principiantes

Zuzendaria: Fernando Colomo. **Herrialdea:** Espainia (2021).

Gidoia: Karra Elejalde, Toni Acosta, Quim Avila Conde, María Pedraza, Luis Bermejo, Cristina Gallego, Inma Cuevas... **Generoa:** Komedia, erromantikoa. **Iraupena:** 97 minutu.

Karra Elejalderen berriena

Satur eta Tina senar-emazteak dira. Amak dirua eramaten du etxera, eta aita arduratzan da

etxeaz eta haurraz. Kontua da semeak 28 urte dituela. Ganorabako youtuberra, gainera.

SINOPSISIA



Operacion Camaron

Zuzendaria: Carlos Theron. **Aktoreak:** Julian Lopez, Natalia de Molina, Carlos Librado, Miren Ibarguren, Julian Villagran, Paco Tous. **Herrialdea:** Espainia (2021). **Iraupena:** 105 min. **Generoa:** Umorea.

Poliziak eta trafikatzailak saltsan

"Song 'e Napule" italiar filmaren remakea da. Sebas polizia arlote bat da, eta misio berezia betetzea eskatzen diote: Los Lolos flamenco-trap

taldean sartzea, trafikatzailen baten alabaren ezkontzan jo behar dutelako. Julian Lopez aktorea da protagonista nagusia. Umorez beteriko filma.



Sari nagusia La Salle-Berrozpe Ikastetxeko Gorka Amatria eta Aitor Pulpon ikasleek irabazi zuten. Twitchi buruzko erreportajea aurkeztu dute lehiaketara. AIURRI

Erreportari Gaztea Sariaren edizio berria egin ahal izan da

lazko etenaldia eta gero, Andoaingo Udaleko euskara batzordeak lehiaketari berriro ekitea erabaki du

Erredakzioa ANDOAIN

Kazetaritza sustatzea helburu duen lehiaketa da, eta joan zen ostiralean egin zuten Gazte Lokalean sari banaketa ekitaldia. DBH4 eta Batxilergoko ikasleei zuzendutako lehiaketa da, eta epaimahaiaren arabera lanik onena Gorka Amatria eta Aitor Pulpon gazteen erreportajea izan zen. Twitch moldako plataformari buruzko lan hezitzailea da.

Leizaran institutuko lanik onena Unai Santanok eta Lander Duranek egin zuten, "Pornografia, nerabeen sexu-hezitzaile bakarra" izenburukoa. Eta Aita Larramendi ikastolako onena Markel Rabadan eta Eñaut Landarena izan zen, "Robotika industrial: onura ala mehatxu?" izenburua duena. Saridunen lanak irakurgai daude erreportarigaztea.wordpress.com blogean.



Leizaran institutuko lan onena Unai Santanok eta Lander Duranek egin zuten. AIURRI



Aita Larramendi ikastolako lan onena Markel Rabadanek eta Eñaut Landak egin zuten.



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA ANDOAIN

Pardelak birziklatzeko ordua heldu da



Ipar Haizea sentsibilizazio kanpaina burutzen ari da udalerrian. AIURRI

Pardelak eta higiene produktuak zabor bilakatzen ditugun emergentzia klimatikoko garai hauek, pausu bat aurrera egiteko ordua heldu da. Gainera, prest gaude horretarako. Gipuzkoan bada Birzitek deituriko enpresa bat Goierriin, pardelak eta higiene produktuak birziklatzeko gaitasuna duena. Teknologia eta ezagutza baditugu, baita lehengaia ere, zeren zain gaude?

Gipuzkoan 20.000 bat tona hondakin suposatzen dute pardelek eta higiene produktuek. Hondakinak ondo bereiztu eta gero geratzen den errefuxaren %70 direlarik produktu hauek. Pausu hau emateak mundu mailan erreferentzi bat piztea litzake ere. Geure burua erreferente bezela nabarmentzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere baitan birziklapenaren Kluster bat dauka. Bertan birziklapenarekin zerikusia duten enpresen multzo batez osaturik dago. Tartean Birzitek. Kluster hau 2016an sortu zuten eta beraien hitzetan I+G+B sustatu nahi dute eta hondakin politketan eragin, berrerabilpen eta birziklapen ereduak sustatuz.

Honi gehitu behar zaio udalerrri askotan produktu hauek bereizita jasotzen direla, mankomunitateka herri kopuru hauetan jasotzen dira: Sasietan (16 herri), Tolosaldea (4), Urola Erdia (1), San Marko (3) eta Debagoiena (2)

Beraz ideia badaukagu, teknologia eta gaitasuna baita ere, lehengairik ez da falta eta bilketa bereiztua ere egiten da. Orduan, zergatik ez da abian jartzen pardel eta produktu higienikoen birziklatzea?

Gai honek bere biziko garrantzia du eta iruditzen zaigu GHK (hondakinen kontsorzioak) bere kargu hartu behar duela prozesu honen gidaritza eta ejekuzioa. Herriar askok ondo jokatzaren dute hondakinen bereizketaren kasuan eta haratago joan nahi dute pardelak ere birziklatuz. Gizartearen eskaera bat da. Zerbaitz honek eskainiko lukeen lorpen gehigarri hori pizgarria da Gipuzkoarentzat zein bere herriarrentzat, norabide onean beste urrats bat. GHK-ri prozesu honen berehalako funtzionamendua abiatu dezan eskatzen diogu.

BABES BILA:

Gipuzkoako ingurumen diputatuak gai honen inguruan adierazi dadin sinadurak jasotzen gaude osoigo.com plataformaren bidez. Izena eman eta ondorengo estekan babesa eman behar da. 500-era iristean publikoki erantzungo digu. QR bidez sar zaitezketete. Eskerrik asko.



ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Elisabet Gallo Aizpurua
Ekainaren 28an, gure etxeko artistak 6 urte beteko ditu. Nahiz txiki-handia izan beti izango zara gure bitxito. Muxuak, etxekoak partetik.



ANDOAIN
Iosu Guirado Alkorta
Ekainaren 20an, gure etxeko artistak 6 urte beteko ditu. Nahiz txiki-handia izan beti izango zara gure bitxito. Muxuak, etxekoak partetik.



ANDOAIN
Aritz Irazu Roman
Ekainaren 29an 8 urte beteko ditu gure etxeko txiki-handiak. Muxu handiak etxekoak partetik. Ondo ospatu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **943 300 732**

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK
Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 / 665 719 827**

LANA
Asteburutan lan egiteko zerbitzari bila gabiltza. **Irunberri Kultur Elkarte**. Kale Nagusia, 39. Andoain

SALGAI
Lokal komertziala **salgai** Andoaingo Juan Bautista Erro kalean. 51 m², solairu bikoitza

egiteko aukera. 61.000 euro. **687 851 740** Eburne.

EROSI
Andoain inguruan **lur sail** eder baten bila nabil. Cesar Sistiaga. **620 720 694**

MERKATU TXIKIAN PARTE HARTZEKO
diseinua@aiurri.eus

619 163 537
Tel.: **943 300 732**
Bulegora etorrita: **Arantzibia 4-5, behea. Andoain**

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

